

AURREKONTUA 2016 AJUSTATUTA (Maiatza)

2015ean 18.173.093,97€tako aurrekontua ejekutatatu zan. (7 eta 8 kenduta 16.972613,49)

1go kapituloa:	8.025.626,61€ (% 44)
2. kapituloa:	3.811.862,67€ (% 21)
3. eta 9. Kapituloak:	1.042.944,00€ (% 5,74)
4. kapituloa:	3.415.478,93€ (% 18,80)
6. kapituloa:	676.701,28€ (% 3,73)
7 eta 8. Kapituloak:	1.200.480,48€ (% 6,61)

Udalkutxa

Udalkutxa aurrekontuaren erdia baino gehiago da. Udalaren diru iturri nagusia da. 2016an Udalkutxatik 10.098.049€ edukiko genituela esan ziguten. Baina 949.931€ itzuli beharrean aurkitzen gara iazko aurreikuspenak eta likidazioaren arteko diferentzia dala eta. Beraz, 2016rako, 9.148.118€ izango ditugu. 2015ean 9.721.332,00€ izan genituen, 2014ko zorra ordaindu ostean.

Udalkutxaren aurreikuspen eta likidazioaren arteko diferentziak gertatzeagatik azken urteotan itzultitako diru kantitateak:

2011	2012	2013	2014	2015	2016
583.600	825.000	826.431	177.573	264.103	949.931

Hasiera batean 2016rako aurreikusita genituen sarrerak 16.936.453€ ziren. Lanbide hastapena eta enplegu planen diru sarrerak kontuan hasrtu barik. Sarreraren aurreikuspen honetan 2015eko gerakina eta udalkutxako itzulketa kontuan izan behar doguz.

Aurrekontu luzatuan gastuetan 16.971.558,98€ daukaguz era honetan banatuta:

1go kapituloa:	8.271.445,02€ (% 48,74)
2. kapituloa:	4.148.687,28€ (% 24,44)
3. eta 9. Kapituloak:	684.215,67€ (% 4,03)
4. kapituloa:	3.384.271,50€ (% 19,94)
6. kapituloa:	462.939,51€ (% 2,73)
7 eta 8. Kapituloak:	20.000,00€ (% 0,12)

Kontuan izanda 2016rako gelditzen diran diru sarrerak iazkoak baino txikiagoak direla iazko aurrekontu luzatuan ajusteari egin beharrean aurkitzen gara. Horretarako sail bakoitzeko arduradun teknikoari aurrekontua ajustatzeko proposamenak luzatzeko eskatu deusagu.



LANGILERIA

1go kapituloko beharrezko aurrekontua 8.599.226,88€ da. 2016.urteko ordainsarietik Estatuko Aurrekontu Orokorren Lege proiektuak ezarritakoaren arabera %1eko igoera izango dute. Enplegu planak finantziatuta datoz eta beraz, 1go kapituloko gastu moduan finantziatu barik dagoen zatia bakarrik agertzen da.

Langile hastapeneko gastua kenduta (320.381,14€), balorazio fondoaren hornidura kenduta (126.425,73€) eta produktibitate igoera kenduta (38.786,27€), 8.113.633,74€. Ajustea 157.811,28€.

PREBENTZIO 79.000,00

- Laneko erropak 2.850
- Prebentzioko barne ikastaroak 5.000
- Karga ertaineko apalak 4.000

ALKATETZA 404.335,95

- Gizarte laguntzak 10.000
- Itsuki Irratia 3.000
- Hitza 3.000

ADMINISTRAZIO OROKORRA 91.507,79

Kendu beharrekoa:

- Notaritza gastuak 2.000,00€

ATB 320.955,54

- Partida ezberdinak 48.143,25

EKONOMIA 3.868.227,90

(erakunde autonomoak kenduta 3.040.952€, 827.275,90€)

- Enpresa auditoriak 30.000,00

GOUP eta Berualan ez da murrizketarik aurreikusten. Politika sozialak eta alde zaharreko bizibarritzea legealdi honetako lehentasunak direlako.

Erakunde autonomoetan ekarpenak:

BERUALA 500.000

GOUP 1.937.952,00

KIROL 603.000

- 20.000€, 7. Kapitulotik

UDALTZAINGOA 43.823,43

- Uniforme tresnak 1.000,00€

KULTURA 529.455,53

- Kultura difusioa 14.400
- Kultur taldeei diru laguntza 2.775
- Lankidetzaren hitzarmenak 7.650
- Jai desberdinetarako gastuak 20.145
- Jaietarako dirulaguntzak 8.850



ZERBITZU	2.479.059,01
-Partida ezberdinetatik 364.908,89	
URIGINTZA ETA INGURUMENA	195.395,00
-Zarata mapa 21.780	
LURGINTZA	130.000,00
-Azokak 2.000	
-Auzobideen garbiketak 5.000	
MERKATARITZA ETA TURISMOA	370.000,00
-Beste ekintza batzuk azoka 5.000	
-Berton elkarteak, bostale eta udal azoka 5.000	
-Valora ekintzak 10.000	
-Merkatariak eta ostalariak suspertzeko ekintzak 16.000	
-Bizkaia Costa Vasca 3.600	
-Elkarteetan bideratzen diran ekintzak 7.000	
-Turismo mahaia 2.105	
GAZTERIA	128.325,00
-Udaleku irekiak 3.500	
-SIFAC 2.275	
-Prestakuntza ikastaroak 9.000	
-Antzerki ikastaroa 800	
-Dirulaguntzak gazteria 1.250	
-Gazte lokalen alkarbizitzarako gida 423	
EUSKERA	154.667,78
-Partida ezberdinetatik 23.200,00	



Proiektu estrategiko komunak definitzea proposatzen da. Proiektu honeek batzordetik haragoko lanketa bat eskatzen dabe:

1. BWTC
2. Ortube. Itsas ondarea.
3. Alde zaharraren bizibarritzea
4. Udaletxea
5. Kudeaketa aurreratua
6. ...



- 2016ko aurrekontua 2015ekoa ajusteez aurrera eroatea eta 2017ko aurrekontua lantzen hasia 2015eko abenduan onartu ahal izateko.

Aurrekontuak 2017

1. Lan talde bat eratu: kontuhartzailea, idazkaria, ATB, alderdi bakoitzeko pertsona bat eta alkatea. Beste teknikari batzuk ere parte hartuko dabe beharizanen arabera. Prozedura eta epeak finkatu.
2. Aurrekontuen azalpen orokor bat emon
3. Egoera ekonomikoa aztertu. Udalkutxa, aurrekontuaren egoera, diru sarreren portaera.
4. Legealdiko plangintza adostu. Lortu nahi doguzan helburuak finkatu eta onartu.
5. Sailen eta erakunde autonomoen memoriak eta proposamenak landu.
6. Diru sarreren azterketa: Ordenantza fiskalak eta zerga, tasa eta prezio publikoak landu.
7. Diru sarreren azterketa: ondarea aztertu
8. Gastuen azterketa
9. Partaidetza prozesuaren diseinatu eta herritarrakaz aurrekontuak kontrastatu
10. Ordenantza fiskalak, zergak, tasak eta prezio publikoen onarpena urriko bilkuran
11. Aurrekontuen onarpena abenduko bilkuran

